

UDALAREN OSOKO BILKURA

Bilkuraren akta

Ohiko bilkura

Eguna: 2020ko azaroaren 11, asteazkena.

Ordua: 20:00

2020ko abenduaren 9ko bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Oyón Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Bilkura eratu den unean bertan ez daude zinegotzi hauek: Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia) (familia arrazoiengatik).

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra bilkuran izan da, idazkari gisa.

Saioa alde zuzenetik eta arauzko publikizitatearekin deitu da, eta honako hau izan da gai-zerrenda:

Gai-zerrenda

1. 2020ko urriaren 14ko aurreko ohiko bilkuraren akta onestea.
2. Eva Frías del Val zinegotzi hautagaiak kargua hartzea.
3. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
4. **Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea**
 - 4.1. Merkataritza-sozietatean sartzeari ezesteko Daniel Salvador zinegotzi ez-atxikiaren mozioa eta EH Bildu eta EAJ-PNVren zuzenketak.
 - 4.2. “Kirol-instalazioetan zerbitzuei” buruzko kontratuaren barruan 2020ko denboraldiko udal-igerilekuaren zerbitzua likidatzea.
5. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea**
6. **Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea**
 - 6.1. Azaroaren 25eko adierazpena. Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna.
7. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu, eta Hirigintza Batzordea**
 - 7.1. Berdeguneen mantentze-lanen eta bide-garbiketaren zerbitzuen kontratuak amaitzean aztertzea.
 - 7.2. 2020 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorrari erantsitako lanpostuen zerrenda.
 - 7.3. Udalhitz 2008-2010 akordioari atxikitzearen erabakia.

Azken puntua) Galde-eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta gai-zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. **2020ko urriaren 14ko aurreko ohiko bilkuraren akta onestea.**

Udalbatzaren 2020 – XI – 11ko bilkura;

Alkate-udalburuak aktari buruzko oharra egiteko gonbita egin die zinegotziei. Ez da oharrik egin.

Hau erabaki da:

- 1) 2020ko urriaren 14ko aurreko ohiko bilkuraren akta onestea.

Aldeko 9 (bederatzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

2. Eva Frías del Val zinegotzi hautagaiak kargua hartzea.

Aurrekariak:

1. Eva Frías del Val EH Bildu Oionko kandidaturan zinegotzi hautagaia izan da, eta hauteskunde-batzorde zentralak egindako ziurtapenaren arabera, bateraezintasunen adierazpena eta ondasunen nahiz eskubideen adierazpena aurkeztu ditu.

Frías del Val andreak honako formulari jarraikiz hartu du kargua: Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu bainaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta, legeak hala aginduta, ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa eta Euskal Herria-ren Errepublikaren aldarrikatzea eta guzti. Eta gaztelaniaz: Tomo posesión del cargo de concejala de Oyón. Y prometo velar por los intereses de las vecinas y los vecinos de Oyón por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejal y por imperativo legal acatar la Constitución Española y hasta la proclamación de la República de Euskal Herria.

Frías del Val andreak kargua hartu du, eta, ondorioz, zinegotzia da eskubide osoz. Osoko bilkuran eseri da, eta une honetatik aurrera bilkuran parte hartzen hasi da.

Udal-taldeetako bozeramaileek zinegotzi berriari ongizatea eman diote.

3. Alkatetza dekretu eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretuen eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoen berri: 222/2020 eta 248/2020 bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

4. Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea

4.1. Merkataritza-sozietatean sartzeari ezusteko Daniel Salvador zinegotzi ez-atxikiaren mozioa

Udalbatzaren 2020 – XI – 11ko bilkura;

eta EH Bildu eta EAJ-PNVren zuzenketak.

Alkate jn.: Mozioa eta zuzenketak batzordeen bilkuran aztertu ziren, eta mozioa osoko bilkurara eramatea proposatu zen, eztabaidatu eta bozkatzeko. Zuzenketarik aurkeztu ez duten gainerako taldeek adierazi zuten osoko bilkuran emango zutela beren iritzia.

Jakinarazi den bezala, merkataritza-sozietatean sartzeko Daniel Salvador atxiki gabeko zinegotziaren mozioa kentzeko eskaera dago. Kentzea proposatzen duen pertsona bere egunean mozioa aurkeztu zuen bera da. Mozioari zuzenketak egin zaizkio, eta, horregatik, beste talde edo zinegotzi batzuei entzun zaie. Entzunaldiaren epea azaroaren 9an (astelehena) 13:00etan amaitu zen. EH Bildu taldea kentzearen aurka ageri da.

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): EH Bildu taldeak mozioa ordeztzeko zuzenketa bat aurkeztu du, eta, ondorioz, aztergaien zerrendatik kentzea egokia ez delakoan dago. Aspertuta gaude ez eztabaidatzearekin eta mozioak bozkatzeko baino ez aurkeztearekin. AFaren 91. eta 94. artikuluen arabera, eztabaidatu behar da eta, horregatik, nire proposamena da mozioa aurkeztu zuen zinegotziak defendatzea eta mozioa bera nahiz zuzenketak eztabaidatzea. Hala, hurrengo bilkurara arte mahaiaren gainean uztea proposatzen dugu, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Alkate jaunak agindu ostean, idazkari jaunak mozioa aztergaien zerrendan sartzeko arrazoiak eman ditu, zinegotziak kentzeko eskatu arren:

Mozioen arauketa 2019ko uztailaren 8ko bilkuran erabaki zen, eta, besteak beste, adoste aldera, batzordeen ohiko bilkuran aztertuko dira Udalbatzaren ohiko bilkurara iritsi baino lehen. Horrela, mozioak negoziatzeko, zuzentzeko eta adosten saiatzeko epea astebetekoa izango da, gutxienez. Horrenbestez, mozioak zuzenketak aurkeztu, negoziatu, eta abarren mende geldituko dira.

Maiatzaren 20ko bilkuran erabaki zen zenbait mozio aztergaien zerrendatik kentzea, besteak beste, zuzenketarik izan ez zituztelako.

Daniel Salvadorren mozioa batzordearen bilkuran landu zen, eta bilkura berean bi udal-taldek bi zuzenketa aurkeztu zituzten.

Espainiako Parlamentuko zuzenbidearen arabera, proposamenaren egileak lege-proposamen bat erretiratu nahi izanez gero, berez ondore guztiak izango ditu, kontuan hartzea erabaki baino lehen gertatzen bada. Erabaki ostean, Ganberako osoko bilkurak onesten duenean bakarrik kendu ahal izango da. (Diputatuen Kongresuko Araudia, 129. artikulua).

Kentzeko eskaera azaroaren 5eko 23:10ean erregistratu zen. Horren berri eman zitzaizen zuzenketak aurkeztu zituzten taldeei, kentzearen gainean beren iritzia azaltzeko. Osoko bilkurarako deialdia azaroaren 6an egin zen, horregatik sartu zen osoko bilkuraren aztergaien zerrendan.

Eusko Legebiltzarraren Araudiak 152. artikuluan hala dio:

Proposamenaren egilearen lege-proposamena kentzeko ekimenak ondore guztiak izango ditu, kontuan hartzeko erabakia hartu baino lehen egiten bada. Erabakia ondoren, Ganberako osoko bilkurak onesten duenean baino ezingo da kendu, eta, gutxienez, Legebiltzarreko bi taldek eskatu beharko dute.

Eta Arabako Batzar Nagusien Araudiaren 142. artikulua honako hau xedatzen du:

Foru arauaren proposamena egiten duen taldeak kendu ahalko du, baldin eta Osoko Bilkurak aintzat hartu ez badu. Aintzat hartzea erabakiz gero, Ganberako osoko bilkurak onesten duenean baino ezingo da kendu.

Analogiazko interpretazioaren arabera, zuzenketak aurkeztean eta batzordearen bilkuran sartzean mozioa kontuan hartu da.

Irizpide honen arrazoia da zuzenketak egin dituzten taldeen lana errespetatu behar dela, zuzenketak aurkeztzen direnean mozioak aurkeztu eta kentzeko eskubidea baldintzatzeaz gain.

Udalburutzak aztergaien zerrendan sartu ondoren, Udalbatzak erabaki behar du kentzea.

Aurrekariak:

- 1) Daniel Salvador atxiki gabeko zinegotziaren eskaera merkataritza-sozietatean sartzeko mozioa kentzeko, berak aurkeztu ostean.
- 2) Mozioari zuzenketak egin zizkieten taldeei entzuteko epea.
- 3) EH Bildu Oion taldeak mozioa kentzearen aurka egitea.
- 4) Toki Erakundearen Antolamenduari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 92. artikulua da aplikagarria.

Hau erabaki da:

- 1) Merkataritza-sozietatean sartzea ezesteko Daniel Salvador zinegotzi ez-atxikiaren mozioa eta EH Bildu nahiz EAJ-PNV taldeen zuzenketak aztergaien zerrendatik kentzea eta mahaiaren gainean uztea, bai eta hurrengo bilkuran eztabaidatzeko atzeratzea ere.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva Frías del Val (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

4.2. “Kirol-instalazioetan zerbitzuei” buruzko kontratuaren barruan 2020ko denboraldiko udal-igerilekuaren zerbitzua likidatzea.

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Proposamena ez zait arrazoizkoa iruditzen. Nire ustez ez da bidezkoa. Ez da ikastarorik eman, baina, aldi berean, monitoreen gasturik ez da izan. Ludotekako diru-sarrerak galdu dira ingelesezko ludotekarako alokairuarengatik. Eta gero 2019ko diru-sarreraren eta gastuen aipamena dago. Abonu eta sarrerak direla eta, galdu diren diru-sarrerak gure gain hartu behar ditugu, noski. Prestazioak gehitzeko aitortu diren lan-kontratuak nahi ditugu. Ez gara esaten ari ez ordaintzea, baina zenbatekoa gehiegizkoa da. Eta negoziazioaren ondore bada, alkateak gaizki negoziatu du.

Alkate jn.: Bagenekien zerbitzuaren prestazioa gehitzeko ordaindu behar genuela, eta kalte-ordaina negoziaketaren ondorioa da. Edo zerbitzua eman ez dela uste duzu? Gaia epaitegietan ebatzi baino lehen nahiago dut negoziazioaren bidez ebaztea, eta negoziatzea alkateari dagokio. Hala, adostasunera iritsi gara.

Aurrekariak:

1. Oyón-Oion Udaleko Osoko Bilkurak, 2020ko uztailaren 8an eginiko bilkuran, erabaki zuen COVID-19aren pandemia zela eta, zerbitzu osagarrien prestazioa baimentzea eta udal igerilekua irekitzea edukitzeagatik 2020ko diru-sarrerak galtzearen ondoriozko kalte-ordainaren irizpideak onestea. Era berean, erreparatu behar zitzairen 2019ko ustiapen-balantzeari, bazkideen urteko zerrendari eta kontzeptu horrengatik eta udal-igerilekura sartzegatik diru-sarrerei.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea kontratuaren finantza-oreka 2020ko uztaileko bilkuran onetsi ziren irizpideen arabera. Hala, 2019 ekitaldiko ustiapenaren urteko balantzea eta COVID-19aren pandemia zela eta ematea agindu ziren zerbitzu osagarriak kontuan hartuko dira. Helburua da zerbitzuaren kudeatzaileak galerarik ez izatea eta bideraezin ez bihurtzea. Finantza-oreka horretarako UTE Oiondeportivo BPXPort Agua y Jardín SA kontratatari 58.446,45 euroko kalte-ordaina ordainduko zaio. Kalte-ordaina hileko kuotetan ordainduko da.

Aldeko 6 (sei) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

Aurkako 2 (bi) boto: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Eva Frías Del Val (EH Bildu Oion).

2 (bi) abstentzio: Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

5. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea

6. Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea

6.1. Azaroaren 25eko adierazpena. Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna.

Eslava Guillerna andreak gaztelaniaz eta euskaraz irakurri du Azaroaren 25eko adierazpena. Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunari buruzkoa. Honako hau dio, hitzez hitz:

La pandemia de la COVID-19 ha puesto nuestras vidas y comunidades en jaque, desafiando seriamente la salud, la seguridad y el bienestar de todas las personas y la vida en comunidad. Está cambiando nuestra forma de entender y estar en el mundo. El confinamiento, las restricciones de movimiento y la limitación de las relaciones han destapado con toda su crudeza las situaciones de extrema vulnerabilidad de las mujeres que están enfrentando violencia machista en sus diferentes formas.

Todos los contextos de crisis, como ocurre con esta pandemia, son un caldo de cultivo para que la violencia machista prolifere, se multiplique y se reproduzca. Esta violencia es una manifestación de las desiguales relaciones de poder y de la discriminación contra las mujeres, que se ven agravadas por las crisis sanitaria, social y económica que estamos viviendo.

En la situación generada por la pandemia, debemos poner el foco en las mujeres y niñas que enfrentan violencia en sus hogares, en sus trabajos, en sus espacios de vida están resistiendo por su supervivencia. En este contexto debemos seguir trabajando para generar las condiciones adecuadas para evitar su aislamiento, desprotección e invisibilidad. Se merecen todo el reconocimiento y solidaridad de la sociedad. Por eso queremos recordar especialmente hoy a las cuatro-mujeres asesinadas este año en Euskal Herria, dos en la CAPV y otras dos en Iparralde. Esta dolorosa realidad nos interpela como sociedad y nos compromete a seguir trabajando y movilizarnos para que no siga ocurriendo.

Sin embargo, con esto NO BASTA. Debemos estar a la altura con un compromiso político inequívoco, porque la sociedad exige a las instituciones que hagan de la violencia machista contra

las mujeres una prioridad política. Es tiempo como nunca de disponer todo el apoyo y recursos de los servicios públicos y de las instituciones, para apoyar a las mujeres en sus procesos de liberación, recuperación, empoderamiento y autonomía. Es imprescindible para que las mujeres recuperen el derecho fundamental a una vida que merezca la pena ser vivida, con dignidad y seguridad. Es condición necesaria, además, para que nuestros pueblos y ciudades se fortalezcan como espacios de convivencia segura, solidaria e igualitaria.

Desde nuestra cercanía a la ciudadanía, los Ayuntamientos vascos queremos poner voz a la solidaridad de nuestros municipios con las mujeres y otras víctimas de la violencia machista. Asumimos nuestra responsabilidad en colaboración y coordinación con todas las instituciones, colectivos feministas y de mujeres, expertas y agentes de sociedad. Por todo ello, el Ayuntamiento de Oyón-Oion se compromete a:

- Situar los derechos de las mujeres víctimas de violencia machista en el centro de todo el proceso de atención, escuchando y atendiendo sus necesidades y demandas, para diseñar nuevas políticas que garanticen el derecho a la protección, atención, reparación y garantía de no repetición.
- Mejorar la vigilancia para poder detectar y actuar con rapidez ante nuevas formas y-nuevos perfiles de mujeres en situaciones de violencia
- Sostener, mejorar y adaptar los servicios de atención y apoyo para las mujeres que enfrentan violencia machista en todas sus formas con un enfoque reparador, en el ámbito de las competencias de cada institución
- Impulsar los programas de apoyo al empoderamiento de las mujeres y la prevención de la violencia entre la población más joven como instrumentos esenciales para impedir futuras situaciones de violencia.
- Preservar y consolidar los programas de igualdad en la vida local, para luchar contra el aumento de las desigualdades que agudizar las situaciones de vulnerabilidad de algunos colectivos de mujeres.
- Analizar el impacto que la crisis del COVID19 está teniendo en el empobrecimiento y la vulnerabilidad de las mujeres para poder diseñar actuaciones específicas de apoyo.
- Incorporar la perspectiva de género en las medidas dirigidas a paliar las pérdidas de empleo, ingresos y otros impactos negativos de la crisis, que han afectado más a las mujeres y suponen un obstáculo para que puedan salir de situaciones de violencia machista.
- Apelar a la colaboración y coordinación entre instituciones, Ayuntamientos, Diputaciones Forales y Gobierno Vasco a fin de garantizar los recursos y poner en marcha todas las iniciativas necesarias, en el marco de sus competencias.
- Asimismo, hacemos un llamamiento a nuestros vecinos y vecinas a adherirse a las movilizaciones convocadas por el movimiento feminista con motivo del día por la Eliminación de la Violencia hacia las mujeres.

COVID-19aren pandemiak gure bizitza eta komunitateak kolokan jarri ditu, pertsona guztien osasunari, segurtasunari, ongizateari eta komunitate-bizitzari erronka handia jarritz. Mundua ulertzeko eta bertan egoteko dugun modua aldatzen ari da. Konfinamenduak, mugimendurik gabeko eta harreman-mugek agerian utzi dituzte, beren gordintasun osoz, indarkeria matxista mota desberdinei aurre egiten ari diren emakumeen egoera oso ahulak.

Krisi-testuinguru guztiak, pandemia honekin gertatzen den bezala, indarkeria matxista, ugalteko, biderkatzeko eta ugaritzeko haztegi bat dira. Indarkeria hori botere-harreman

desorekatuen eta emakumeen aurkako diskriminazioaren adierazpen bat da, eta pairatzen ari garen krisi sanitario, sozial eta ekonomikoaren ondorioz larriagotu egiten dira.

Pandemiak sortutako egoeran, arreta jarri behar dugu beren etxeetan, lanetan eta bizi-espazioetan bizirik irauteagatik indarkeriari aurre egiten ari diren emakume eta neskenengan. Gizartearen aitorpen eta elkartasun osoa merezi dute. Testuinguru horretan, isolamendua, babesgabetasuna eta ikusezintasuna saihesteko baldintza egokiak sortzeko lanean jarraitu behar dugu. Horregatik, aurtan Euskal Herrian hildako lau emakumeak gogoratu nahi ditugu bereziki gaur, bi EAEn eta beste bi Iparraldean. Errealitate mingarri horrek gizarte gisa interpelatu egiten gaitu, lanean jarraitzeko eta mobilizatzeko konpromisoa hartzeko, horrela gerta ez dadin. Hala ere, horrekin ez da nahikoa. Konpromiso politiko argia behar dugu, gizarteak erakundeek eskatzen baitie emakumeen aurkako indarkeria matxista lehentasun politiko bihurtu dezatela. Inoiz ez bezala zerbitzu publikoen eta erakundeen laguntza eta baliabide guztiak izateko, emakumeek beren askapen-, berreskuratzeko-, ahalduzko- eta autonomia-prozesuetan laguntzeko garaia da. Ezinbestekoa da emakumeek duintasunez eta segurtasunez bizitzea merezi duen bizitarako oinarritzko eskubidea berreskuratu dezaten. Behar-beharrezko baldintza da, gainera, gure herriak eta hiriak bizikidetzak seguru, solidario eta berdintzalerako gune gisa indartu daitezen.

Herritarrengandik hurbil gaudenez, euskal udalak ahotsa jarri nahi diogu gure udalerriek emakumeekiko eta indarkeria matxistaren beste biktimak batzuekiko duten elkartasunari. Gure erantzukizuna gure gain hartzen dugu, erakunde, kolektibo feminista eta emakumeen kolektibo, aditu eta gizartearen eragile guztiekin lankidetzan eta koordinatuta. Horregatik guztiagatik, Oiongo Udalak konpromiso hau hartzen du:

- Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jartzea, haien beharrak eta eskaerak entzun eta aintzat hartuta, babeserako, arretarako, erreparaziorako eta berriz ez gertatzeko bermerako eskubidea bermatuko duten politika berriak diseinatzeko.
- Behaketa hobetzea, indarkeria-egoeretan dauden emakumeen forma eta profil berriak hautemateko eta horien aurrean azkar jarduteko.
- Indarkeria matxistaren edozein formari aurre egiten dioten emakumeentzako arreta- eta laguntza-zerbitzuak mantentzea, hobetzea eta egokitzea, ikuspegi konpontzailearekin, erakunde bakoitzaren eskumenen esparruan.
- Emakumeen ahalduztuari eta Gazteen artean indarkeriaren prebentzioari laguntzeko programak bultzatzea, etorkizuneko indarkeria-egoerak eragozteko funtsezko tresnak diren aldetik.
- Tokiko bizitzan berdintasun-programak zaintzea eta egonkortzea, emakume-kolektibo batzuen egoera ahulak areagotzeko desberdintasunak areagotzearen aurka borrokatzeko.
- COVID19aren krisiak emakumeen pobretzean eta kalteberatasunean duen eragina aztertzea, laguntza-jarduera espezifikoak diseinatu ahal izateko.
- Genero-ikuspegia txertatzea enplegu-galerak, diru-sarrerak eta krisiaren beste eragin negatibo batzuk arintzeko neurrietan, zeinak eragin handiagoa izan duten emakumeengan, eta oztupo diren indarkeria matxistako egoeretatik ateratzeko.
- Erakunde, udalen, foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzak eta koordinazioa eskatzea, baliabideak bermatzeko eta beharrezko ekimen guztiak abian jartzeko, beren eskumenen esparruan.
- Halaber, gure bizilagunei dei egiten diegu mugimendu feministak Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatze eguna dela-eta deitutako mobilizazioei atxikitzeko.

Alkate jn.: Talderen batek nahi izanez gero, bozkatuko da, eta ondo iruditzen bazaizue Udalbatzak bere adierazpen egingo du, guztiak ados bagaude.
Taldeetako bozeramaileek baietsi dute.

7. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea

7.1. Berdeguneen mantentze-lanen eta bide-garbigetaren zerbitzuen kontratuak amaitzean aztertzea.

Berdeguneen mantentze-lanen eta bide-garbigetaren zerbitzu-kontratuak amaitzean LKS Next konpainiak egindako azterketaren kontu eman da. Aipatutako azterketak honako hauek ditu:

- Bideak garbitzeko eta lorategiak mantentzeko zerbitzuen indarreko kudeaketa-kontratuak amaitzean izan daitezkeen agertokien azterketa ekonomikoa.
- Oyón-Oion Udaleko bideak garbitzeko eta lorategiak mantentzeko zerbitzuak udalekotzearen eraginei buruzko analisi juridikoa.

Alkate jn.: EH Bilduk zalantzak planteatu ditu azterketa ekonomikoan aipatzen diren kale-garbigailuen gainean. Aholkularitzak azaldutakoari jarraikiz, bide-garbigetari dagokionez, 2018an Arrasateko Udalarentzat egindako azterketan Oiongo azterketarako erabili diren antzeko zifrak erabili ziren, eta eredu hauek zeuden:

MFH CS 550_5 m³ kale-garbigailu berria: 193.600,00 euro.

MFH CS 250_2 m³ kale-garbigailu berria: 178.475,00 euro

Prestazioei dagokienez, kale-garbigailu horiek ez dute zerikusirik EH Bilduren bozeramaileak aurrekontuetan ekarritakoekin. Beste makina batzuk dira, eta bestelako prestazioetarako erabiltzen dira.

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Eskaintzen dizkigunetan kale-garbigailuak Oionen zerbitzua emateko dira, eta askoz merkeagoak dira.

Alkate jn.: Azterketa EH Bilduk aurkeztutako mozioari eta EAJ-PNV taldeak zuzendutakoari erantzuteko egin da. Eta aholkularitza aditu batek egin du. EH Bilduk bere burua eskaini zuen azterketa egiteko, baina alkate naizen neurrian, ez dizut utziko zerbitzuak udalekotzeari buruzko azterketa egiteko, udalekotze horren alde zaudenean.

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Ez esan zuk egingo zenukeen gauzarik. Nik ez ditut egin. Hor dituzu datuak.

Alkate jn.: Aktan azterketa ekonomikoaren ondorioak sartuko ditugu. Eta espedienteak izapidetzen jarraituko ditugu.

Bideak garbitzeko eta lorategiak mantentzeko zerbitzu-kontratuak amaitzean izango diren agertokien azterketa ekonomikoari buruzko ondorioak:

Enpresek helarazitako informaziotik abiatuta, kontuan hartu diren aldagaiei erreparatuta, hasieran, zeharkako kudeaketa da modalitaterik merkeena kudeaketa-kostuen ikuspegitik. Urteko kostua 127.862,18 eurokoa da bide-garbigetarako eta 128.012,54 eurokoa lorategien mantentze-lanetarako; zuzeneko kudeaketan, berriz, kostu horiek 149.451,00 eurokoa eta 141.034,41 eurokoa dira, hurrenez hurren.

7.2. 2020 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorrari erantsitako lanpostuen zerrenda.

Aurrekariak:

- 1) 7/1985 Legearen 22.2 artikulua xedatutakoaren arabera, Udalbatzari dagokio langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda onestea, funtzionarioen aldizkako ordainsari osagarrien eta finkoen zenbatekoa finkatzea, bai eta behin-behineko langileen kopurua eta araubidea zehaztea ere.
- 2) Funtzionarioen ordainsari osagarriak lanpostuen zerrendaren arabera zehaztu eta aplikatzen dira.
- 3) Ekonomia Informazio Batzordearen bilkuran egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Indarrean dauden Oyón-Oiongo Udaleko langileen plantillari eta lanpostuen zerrendari jarraikiz, langile publikoen ordainsari osagarriak aplikatzea. Ordainsari horiek espedientean daude, eta zinegotziei bidali zaizkie. Langileen plantillari eta lanpostuen zerrendari jarraikiz langile publikoei aplikatuko zaizkien ordainsari osagarrien zerrenda ALHAOn argitaratuko da.

Aldeko 8 (zortzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

2 (bi) abstentzio: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Eva Frías Del Val (EH Bildu Oion).

21:25ean Idoia Eslava Guillerna zinegotziak bilkura utzi du.

7.3. Udalhitz 2008-2010 akordioari atxikitzeko erabakia.

Aurrekariak:

- 1) Euskadiko toki erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (Udalhitz 2008-2010). Jatorrizko testua 2008ko abenduaren 2ko EHAAr argitaratu zen.
- 2) Argitaratu zenetik, Udalhitz akordio arau-emailea administrazio honen zerbitzura dauden langile publikoekin harremanak arautzeko esparru gisa erabili da. Are gehiago, Udalbatzak onetsi dituen aurrekontuetan, Alkatetzaren memoriak, gutxienez 2017 ekitalditik, berariaz adierazten du gobernu-talde honen borondatea Udalhitz 2008-2010 akordioa betetzen dela bermatzeko.
- 3) Ekonomia Informazio Batzordearen bilkuran egindako proposamena.
- 4) Erabaki-proposamena langile publikoen, langile funtzionarioen eta langile lan-kontratudunen, ordezkariiei helarazi zaie.

Hau erabaki da:

- 1) Oyón-Oiongo Udala Udalhitz akordio arau-emaileari atxikitzea eta alderdiek adostutako eguneratze guztiak kontuan hartzea, administrazio honen zerbitzura diharduten langile publikoekin harremanak arautzeko esparru gisa erabiltzen baita.

Aldeko 9 (bederatzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva Frías del Val (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzuurrungaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Azken puntua) Galde-eskeak

Gamarra López-Brea jn. (PSE-EE PSOE): San Prudentzio kaleko lorategiari eta Foruen zeharbideko arrapaladari buruz galdetu du.

Alkate jn.: Zerbitzuaren kontratatari argibideak eman dizkiogu lorategia aldatzeko, eta zeharbidean zorua ordeztzeko proposamena dugu.

Alkate jn.: Salvador zinegotzi jaunak zenbait galdera egin zituen azaroaren 11ko bilkura honetan erantzuteko, baina ez dagoenez, ez dira erantzun.

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Bilkuran parte hartu ez duen arren, galderak Facebookeko orrian daude, eta bat niri dagokidanez, ohar argigarri bat irakurriko dut. Nolanahi ere, nahiagoko nuke Salvador jaunak zuzenean entzutea:

2020ko maiatzaren 20an eginiko osoko bilkuran galdera eta eskeen txandan EH Bildu Oion taldeak udalerriko liburutegia soldatan balizko akatsaren kontu eman zuen, eta ikertzeko eskatu zuen.

2021ean gure taldeari arraroa iruditu zitzaion langile horrek hain soldata altua izatea, eta horregatik ikertu zuen. Lehen urratsaren bidez liburutegia nomina begiratu zen, eta lehen ikusian guztia ondo zegoen: oinarriko soldata, berariazko osagarria, lanpostu-mailako osagarria, antzintasuna, etab. Halakoetan administrazioan ikertzea oso zaila da eta lan-kargaren, lanpostuen balorazioaren eta hainbat faktoreen arabera soldata-osagarriak zehaztea erraza ez da. Une hartan ageri-ageriko akatsik aurkitu ez zenez, pixkana ikertzen jarraitzea erabaki genuen, baina gauza argia aurkitu arte gure zereginari etsi gabe. 2020. urteko martxoan dagoeneko jakin genuen akats bat zegoela, eta hala jakinarazi genion Udalbatzari.

Baliteke kontu eman genuen osoko bilkuran, ni EH Bildu Oion taldeko bozeramaile naizen honek argi eta garbi azaltzeko gai ez izatea, baina gertakariak ohar argigarri honetan zehaztutako moduan gertatu ziren. Esandakoa funtsatzen duen probarik gabe ezin daiteke salatu edo akats bat azaleratu.

Ez da galdera gehiagorik egin.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburuak amaitutzat eman du bilkura 21:55ean (bilkura 20:00etan hasi da), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2020ko azaroaren 16an.

Udaleko idazkaria:

O.E. Alkatetza